

genozidioaz

joxe azurmendi



Ogiari ogi ta ardoari ardo esan behar zaiola entzuten da. Hala izango da. Eta zer, ogia zer dan ez bada-kigu, edo hori bakoitzak erabaki nahi badu. Horixe baita genozidioarekin gertatzen ari zaiguna.

Genozidioak herri-hilketan esan nahi du. Naziek judeguekin egin zutena izan zan genozidioa. Amerikarrak Vietnam-en genozidio bat egiten ari omen dira. Judeguez berebat genozidioa kometatu omen dute Siriarren, Jordaniarren eta Egiptotarren aurka. Eta abar. Nahaste borrate honen kakoa genozidioaren burutapen edo konzeptuan bertan dago.

Genozidioaren konzeptua berria da. Alegia, azkeneko Mundu-Gerraren ondokoa. Errealidadea bera askoz lehenagokoa izateak ez digu hemen asko lagunduko, burutapen juridiko bezala ez baitzuen oraintsu arte ballotasunik batere (orain ba ote duen?). Legekodexetan ez zegoen kri-

men horren aipamena aurkitzerik.

Azkenean sartu dugu ba nazio-arteko konbentzioetan edo arauetan krimen horren izena: alegia, genozidioa. Alemanek judeguekin eta poloniarrekin egin zituzten izugarrikeriak gaitzesteko sortu zan genozidio izena ta konzeptu juridikoa. Une historiko ta interes konkretu horren extukeriak eta laburtasunak ondatzen digu orain, eta ozta-ozta jakin diteke alemanez gainera nork gehiago egin ote duen genozidiorik kondairan.

Raphael Lemkin, poloniar etorkiko amerikarrak sortu zuen konzeptua 1942-an. 1948-ko abenduaren 9-an bozeman zan (botoman) eta onetsi Nazio Batuetan **Convention on the Prevention and Punishment of the Crime of Genocide**. Hari bozeman ziotenen buruan alemanak zeudela, ez dago esan beharrik. Genozidioa defintitzekoan, halare, larri ibilli ziran juristak,

gudu-irabazleak eta galzailleak zaku berean nola eñ sartu asmatu ezinda. Eta konpromixo guztietan iritxi ohi dan argitasun eta zehaztasunarekin definitu ziguten... Juxtu-juxtu alemanak kondenatzeko eran, baina behatza milimetro bat aruntzago deskuidatu gabe. "Arraza, etnia, nazio edo erlijio goraberengatik asmoz egindako giza-talde baten jazarpen (persekuzio) edo deuseztapena" da, Nazio Batuen esanean, genozidioa.

Bapo. Jazarpena nolakoa danik gabe daukagu definizio ederra. Baina hobe ez dana, eta juristentzat asko adierazten duena, konbentzioa prestatu zanean beste gorabera bat aipatzen zan lege-asmo edo proiektuan: alegia, arrazaren eta beste goraberen ondoan **politika** ere aipatzen zan. Baina hau baztarreratu egin zan... edozein gudu deuseztatzaile genozidio gerta ez zedin!

Eta orain holaxe gaude;

politikazko arrazoiengatik herri bat lur-karta edo mapatik garbitzea ez da genozidio. Amerikarrek Vietnam-en katu bat bizirik uzten ez badute ere, Amerika indartsu dala adierazten du horrek, ez Amerika genozida danik.

Indonesia-n, esaterako, komunistak zanpatu ta massacre amorratu izugarrian akabatzea ez da genozidioa. Politikagatik omen baitzan. Baina Indonesia-n txinarrak erreka gorritzerainoko hilketan zuku-tu ta akabatu zituzte-nean... ez dakigu genozidio ote zan! Izan ere, txinarrak bide batez komunista baziran, orduan Nazio Batuetan hitzaldi eder asko entzuten dira. Hitz asko bezain arrazoi gutxi-rekin...

Azkenean, alemaniar juristek ere ez dakite zer pentsatu: zer demontre genozidio da poloniarrek edo judeguak gas-ganbaretan likidatzea, poloniar edo judegu **arrazarik** ez badago, ameslari ta zoro batzuen irudimenean ezpada behintzat? Biologiako burutapena, edo zer, da arraza? Hala Goebbels-en teoria zentzugabeek, haletzek kondentzen diran une berean, konzeptu bezala onesmen aurkitzen dute hemen?

Beste korapillo bat oraindik: oso koitadua izan behar da, definizioan aipatzen diran arrazoiak kimiko garbi bereizi nahi izateko. Nigeria-n, esatebaterako, ez da zailla somatzea arraza-problema baino zerbait gehiago ba dabil-lela tartean. Eta horra mundua, Biafra-ren aurka genozidiorik, juridikoki, ko-

metatu ote dan erabaki ezinda! Biafratarrek ere ez daudela errurik gabe probatzen saiatzen zaizkigu betiko errealista zorione-koak. Hogeigarren mende-an ba da jakiteko ordua, erruak alde bietatik banatzen dirala. Bai, baina alde batetik genozidioa, Munduak (eta munduak egiten du hori, ez Nigeria-k bakarrik) herri bat deuseztatzea, herri hori errugabe ez danean ere, genozidiorik aski ez balitz bezala... Politikazko fariseismoak, juridismo ta errealismo soineko ederrenekin, ez du oraindik Nazaret-eko Jesusik aurkitu. Iritzi errespeta-garriko errealista guz-tien onesmen borobilleni-k ere ez zaio falta, gainera, ta Estatu soberanoek izen-peturik, legezkoturik eta konsagratu-rik jarraitzen du.

Holaxe gaude, ta ez dakigu herri bat kulturalki zanpatzea ta deus-etzatzea genozidio ote danik. Eta Martin Luther King, beltzen genozidioa genozidio zala argitu ezinda hil zan.

Ameslari bat bezala, ezen-eta fariseismo estabilizatua onartzen ez dutenak ameslariak dira. Hugonoteak, albigenseak, Alpujarra-koak eta Lituania-koak Jainkoaren izenean beste mundura bialtzea genozidio ote danik ez dakigu. Vietnam-go-a zer ote dan ere ez. Indioen kul-tura indartu ordez, haiek zentralisten asmo ta kul-turan integratzea, edo-ta haiek, beste gizatalde "zibilizatu-ekin" nahastuz, herri bezala deuseztatzea, hori ez omen da genozidio, zibilizazio baizik. Eta abar, eta abar. Urruti ta gertu.

Horregatik gerta diteke gaur, lege idatziarekin, epaikariekin eta tribunalekin, alegia, justizia-itxura guz-tiekin (edo ahal dan itxura guztiarekin) benetako genozidioak egitea. Orduan lasai dago errealisten konzientzia. Eta moralistek ere berehalaxe lasaituko dute berea: jazartuak eta zanpatuak ere, ots, genozidioa sofritzen dutenak ere, ez dira zearo ta erabat errugabe!



arantzazu

J. Azurmendi, o.f.m.

Emen ariman gelditu aiz
pake lur ori.
Emen basoetako itzalak.
Errekastoa zoro zebilek oraindik
saltoka, arimako arri artean,
nire itzetan entzuten duk.

Artzanburu noble, Aloña sendo,
Gazteluaitz arro...
Eta retabloa gora igotzen den
argia zeruraino.
Nire arantzartean
gelditu aiz, emen, Arantzazu.

Ik erakutsi didak
gurutze onen bi besoek,
ego bihurturik,
beste mundu batera jasoko nautela.